

Prozedurako hizkera adostasunez lantzen (Epaitegietako hizkera lantzen)

ELOSEGI, Antton

Euskara Juridikoko irakaslea, EHU
Zuzenbide Fakultatea
Manuel de Lardizabal, 2
20009 Donostia

BIBLID [1137-1951 (1996), 0; 101-103]

Inork berandu dela iritzi badiezaioke ere, 1996 urteak estreinako urrats instituzionala ikusi du justizia-administrazioko euskararen alorrean. Instituzionala diot, aldez aurretik, epaile adoretso batzuei esker, euskarak bere txokotxo egina zuelako, ez soilik paperetan, eta interpretarien jardunean, baizik eta, epaiketa batzuk oso-osorik euskaraz eginaz.

Joanak joan, eta Euskararen Legea hamalagarren urtean sartua zegoela, Justizia (ala Zuzentza ?) Saitetik eta ofizialtasun guztiz, judizio zibileko eta penaleko idazki erabilienak, inprimaki informatiko moduan gaztelaniaz eta euskaraz ipintzeko lanetan hasi ziren. Euskaratzeko lehen urratsa, gaztelaniazko inprimakiak aukeratu ondoren, IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialari (IZO) euskaratu zitzaizkion eskatzea izan zen! Ondoren, norbaiten ekimenez, itzulpen horiek kaleratu aurretik agente juridikoen onespenez zabalena lortzea komeni zela-eta, lan-bilera batera deitu gintuzten. Bertaratuak, eta ondoren langintza horretan jardun garenok, Justizia Saileko euskararen arduraduna, IZOko ordezkaria, epaileen ordezkari bat edo bi, UZEIko, Bilboko eta Donostiako Abokatuen Kolegioetako ordezkariak, eta Deustuko Unibertsitateko zein Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateetako ordezkariak. Azken hau, ni neuz.

Maiztasun handiago ala txikiagoz, lan-bilerak ugari izan dira, uztaile arte. Badirudi buruturik utzi ditugula judizio (epaiketa) zibileko lehen auzialdiko (instanziako) inprimakiak, penaleko instrukzioekin jarraitzeko asmo sendoa dugula.

Bilerak, halako giro errezelotsuan —edo gutxienez susmaberan— hasi bagenituen ere, lan-giroa alaituz eta lanaren etekina ere hobetuz joan zen. Geroak, erabilerak alegia, erabilera baita

azken finean hizkuntza-kontutan epaile gorena, esango du gure bilera luze-nekagarrien emaitza ona den, alegia, Justizia-administrazioan euskarak aurrera-pausorik egiten duen, baina baikor egoteko arrazoiak baditudala uste dudanez, horixe da hurrengo lerrootan azaldu nahi nukeena.

Lehenik azpimarratu nahi nukeen puntua da adostasunari edo "consensus"-ari eman zaion tokia eta garrantzia. Jakina da hizkuntzak ez duela zuzenbidearen moduan funtzionatzen, eta zuzenbidean "pacta sunt servanda" printzipioa betearazteko bideak dauden bitartean, alor honetan horrelakorik ez dagoela; eta beste aldetik, inoren "ordezkaritzan" parte hartu izanak ez dituela ezertan lotzen ordezkarietako erakundearen kideak. Baina hala ere ezinbestean urratu beharreko bidea dugu adostasunarena; eskarmentuak ondo erakutsi digu norbere aldetik ibiltzeak, edo goitik behera zerbait inposatu nahiak nolako emaitza eskaxak lortu dituen orain artekoan. Izan ere, administrazioaren munduari buruz ari garela, talde zabal eta anitz batean nekez eta izerdiz "consensus" bidez erabakitako "Euskal Herriko Herri Erakundearen Barne Errotulazioa (1992) da iraunkortasunez eta gogo onez eskola desberdinetako jendeak erreferentzia bakartzat duen liburuxka. Beste muturruean kokatuko nuke nik, inoren adostasunik bilatu gabe, liburuxka hura argitaratu eta hilabete gutxi barru kaleratutako (eta ezarritako) Justizia Administrazioiko —hain zuzen— errotulazioa, jende askok arbuiatu eta kritikatu duena. "Consensus"-a ez da, noski, lanaren garrantzia "zientifikoa", baina bai gauzak dauden puntuan, ezinbestean bilatu behar den zerbait.

Kasu honetan betekizun hori konplitu da: bataren eta bestearen arrazonamenduak entzun ondoren, eta guztiz ados ez egon arren,